



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urtarrilaren 24a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako poliziei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako polizia buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako polizia Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dit. Proiektu hori 2006ko azaroaren 17ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako polizia buruzko Foru Lege proiektua gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Parlamentu-talde honen iritziz, ez da ez beharrezkoa, ez komenigarria Nafarroako polizia buruzko Foru Lege proiektua onestea.

Proiektuak lantzen duen gaia Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko testu bateginean araututa dago; testu hori urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen, eta geroan aldaketa partzial batzuk egin zitzaizkion 35. eta 43. artikuluetan apirilaren 4ko 30/2003 Foru Legearen bitartez; 2004ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 30eko 34/2003 Foru Legearen bidez, berriz, aldaketak egin zitzaizkion 31.2 artikuluan eta 35. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan; uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legeaz 32.1 artikulua aldatu zitzaion, eta, azkenik, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen bitartez 19, 20, 23, 24 eta 25. artikulua indargabetu ziren.

Horrenbestez, berriki eginiko araua da, orain dela gutxi aldaketak egin zaizkiona; haren erregelamendu bidezko garapena bera ere osatu gabe dago. Horrenbestez, hura indargabetzean, proiektuaren bidez lortu nahi den bezala, presa gehiegi ikusten dugu, eta ez dago inolaz ere justifikaturik. Bestalde, hutsean utzi nahi dira bete gabeko konpromisoak, esate baterako Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko hamalau garren xedapen gehigarrian jasotakoa; izan ere, haren arabera, hiru hilabeteko epean, batzorde bat eratuko zen Nafarroako Gobernuaren eta funtzio publikoko sindikatuen ordezkariak osatua, besteak beste, katalogo bat sortu behar zuena arrisku edo zailtasun bereziko lanbideena, 55 urtetik aurrerako erretiro aurreratua aplikatu dakiekena.

Nafarroako Gobernuak ez zuen proiektu hau iragarri legegintzaldi honetan zehar Parlamentuan aurkeztu nahi zituen legegintza-ekimenen artean. Aitzitik, Lehendakaria, Justizia eta Barne Batzordeak, 2003ko irailaren 18ko bileran, Foruzaingoari buruz ari zela, honakoa esan zuen: "legebiltzar honek onetsitako Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko testu bateginak kidego horri esleitzen dizkion funtzioak; haien artean, ongi dakizuen bezala, polizia administratibo hutsaren lanetatik hasi eta trafikoaren edo ingurumenaren arloko eginkizunetarakoak sartzen dira, hartara egiaztatuz legebiltzar honek onetsitako polizia eredu bati dagozkiola guztiak. Hori, lortzeko, ordea, kidegoa eraldatu egin behar da, nafar gutzientzako erreferentziako polizia izatera irits dadin". Hori zela eta, kontseilariak esan zuen "Foruzaingoari buruzko plan zuzendaria egiten hasia zela, kidegoaren garapena aipaturiko polizia integralaren ereduari egokitzeko prozesua definitzeko, eta nafarrek segurtasunaren arloan dauzkaten beharrian aldakorrei erantzuna emateko".

Legegintzaldi osoan ez da egin Foruzaingoari buruzko plan zuzentzailerik, nahiz eta hura egiteko konpromisoa behin baino gehiagotan berretsi Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak berak, azkenekoz Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeko 2005eko martxoaren 2ko eta 2006ko martxoaren 8ko bilkuretan. Logikoa dirudi uste izatea 1994ko plan zuzentzaileak diseinatu eta testu bategin indardunean jasotako polizia eredu aldatzeko edozein planteamendu berri, egitekoa zen planean bilduko zela, eta hari buruzko eztabaida eginen zela, bai arlo teknikoan, bai arlo politikoan, hain zuzen ere Nafarroako Parlamentuan. Ez da horrela izan; izan ere, bat-batean eta harrigarriro, Nafarroako Gobernuak patriatik foru lege proiektu bat atera du, berritasunak ezartzen dituen bai testu bateginari dagokionez, bai gaur arte iragarri diren aurreikuspenei dagokienez. Bereziki deigarria da ezen Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeari buruz berriki egin den eztabaidan ez dela inolaz ere iragarri testu bategina partzialki indargabetu zenetik hilabete gutxitara guztiz indargabetuko zela, edo azken orduan "in voce" zuzenketa baten bitartez polizia laguntzaileen araupetze bat eginen zela –presazko neurri berezi gisa aurkezten zen neurri hori, eta orain, berriz, erreforma zabalago baten zati bat dela ikusi ahal izan dugu–. Proiektu honek eragin zuzena du Foruzaingoaren eta udaltzaingoaren langileen estatutuan, baina enplegatu publikoen beste kolektibo batzuetan eragina duten estatutu-aldaketak ez bezala, horiek aldeztatik negoziatzen baitira, langileen ordezkarien organoei presaz baizik ez zaie jakinarazi, negoziatzeko edo adostasunetara iristeko aukera materialik eman gabe, eta Foruzaingoko Langileen Batzordean dauden sindikatu guztiak espresuki aurka egonda ere parlamentura igorri da.

Tramitazio azkarregi horrek berak nahikoa arrazoi ematen ditu proiektua itzul dadin eskatzeko, Nafarroako autogobernuaren oinarritzko alderdia izaki, herritarren eskubide eta askatasunen bermearekin lotura zuzenarekin, eztabaida zabalagoa eta Nafarroako Parlamentuan adostasun politiko handiagoa merezi baitu, azken hogeitaz urte hauetan gai honetan egin den bezala. Eta gobernuari itzultzea are beharrezkoagoa da kontuan hartzen badugu eztabaida legegintzaldiaren azken hilabete hauetan egin nahi dela, erlojuaren aurka, Nafarroarentzat nahi den eredu polizialari eta eredu horrek eska ditzakeen lege aldaketei buruzko eztabaida lasai eta pausatua egiteko aukera kenduz.

Dena den, proiektuaren edukiarengatik berarengatik ere gobernuari itzuli beharko litzaioke. Proposatzen diren arau gehienak egun indarra dutenen antzekoak dira, edo beste arau batzuetan

(Segurtasun publikoari buruzko Foru Legea, Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoa) ezarritakoa errepikatzen dute, eta ondoren sartzen eta komentatzen diren berritasun nagusiek konponbideak baino arazoak ematen dituzte.

Testu bategineko 21. artikuluan, mankomunitatearen itxurapean, udalez gaindiko poliziak sortzeko aurreikusitako aukera desagertzen da, eta horren ordez ezartzen da Nafarroako Gobernuak baimena eman dezakeela udalez besteko toki entitateak sortzeko 5.000 biztanle baino gehiago izanez gero: toki entitateen autonomia murriztea da hori.

Polizia kidegoak osatzen dituzten lanpostuen izenak beharrik gabe aldatzen dira. Polizia laguntzaileak berriz ere arautzen dira –Segurtasun publikoari buruzko Foru Legean arautu ziren–, baina oraindik zehaztasun gutxiagorekin, zeren eta jotzen baita toki poliziaren kidegoa osatzen dutela, baina egiaz haien estatutua funtzionario publikoen estatutu orokorra da. Polizia kidegoen lanbide karrera aldatzen da, batzuetan erregulazio zailagoa eginez eta egun daudenak baino arazo gehiago sortuz; beste batzuetan, berriz, atzera egiten da 2002ko testu bateginarekin alderatuz gero. Bereziki negatiboa da ezen behin Foruzaingoko ofizial postuak estatutuko segurtasun indar eta kidegoetako aginteei eta baita indar armatuetako aginteei ere irekitzeko aukera deuseztatu ondoren –kontuan hartu behar da Konstituzioak berak beste eginkizun batzuk esleitzen dizkiela eta Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoa batzuen eta besteen karrera profesionala argi bereizi zituela–, oraindik berriz ere sartzen dela indar armatuetako kideei postuak gordetzeko aukera, inspektore eta komisario postuak hain zuzen, eta ez bakarrik Foruzaingoan, tokiko politzetan ere bai. Atzera pauso bat da segurtasun publikoaren sistema desmilitarizatzeko eta profesionalizatzeko azken hogeitaz urteotan izan den prozesuan.

Proiektuan, Nafarroako Segurtasun Eskolari buruzko atal bat dago guztiz desegokia dena, zeren eta oro har segurtasun arloko prestakuntzan ari den organo hori nahasten baitu polizien prestakuntzarako beste organo batekin. Eskolaren erregulazioa ez da Poliziei buruzko Foru Legearen bitartez gauzatu behar, zeren eta haren eginkizunak zabalagoak baitira.

Proiektutik kendu dira langileen sustapenari, lanpostuen betetzeari eta destinoei buruzko erregelamenduak, arau indardunetan bazeudenak; horrekin, polizien estatutuan hain garrantzitsuak diren alderdi horiek agintari administratiboan aukeramenan uzten dira erabat, eta zabalik uzten da

gaur egun ezarrita dauden bermeak gutxitzeko bidea. Gehiegizko aukeramen hori antzeman da bigarren jardueraren erregulazioan ere, zeinak ez ditu inolaz ere aitortzen interesdunen eskubideak eta bermeak; bereziki kezkarria da testuan aurreikustea Nafarroako polizia kidegoetako kideei emaniko esker onak, ohoreak eta sariak –gaur egun arte guztiz aukeramenek eman direnak eta proiektuaren arabera berdin ematen jarraituko direnak– “lanbide karreraren ageriko elementu” bihurtzea, zeren eta horrekin iragartzen ari baita karrera horrek ez duela objektibotasun bermerik izanen.

Atzera egiten da, halaber, ordainsarien erregulazioan, zeren eta lanpostu osagarria eta aginte osagarria nahasten baitira; izan ere, testu bateratuak bi osagarri berezi gisa jasotzen zituen. Haien aplikazioa bereziki gatazkatsua izan daiteke, batez ere Konstituzio Auzitegiak ezarritako jurisprudentzia ikusita, Nafarroako langile publikoen ordainsarietako igoserarako mugei dagokienez.

Bada, azkenik proiektuan sartzen den beste elementu bat, beharrezkoa ez dena eta arazoak sortzen dituena: Nafarroako Foruzaingoaren Kontseilua. Izan ere, organo horren eginkizunak eta egungo Langileen Batzordearen eginkizunak ia berdinak dira. Langileen Batzordea araututa dago enplegatu publikoek lan baldintzak zehazterakoan duten ordezkariari eta parte-hartzeari buruzko arau orokorren arabera. Antzeko eginkizunetarako bi organo egoteak, hautapen/izendapenerako bi sistema desberdinekin, lan baldintzei buruzko negoziazio prozesuak zaildu eta barne gatazkak areagotzea besterik ez du ekarriko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako polizia buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako polizia buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak bidalitako Nafarroako polizia buruzko Foru Lege proiektuak fikzio bat du abiapuntu; hots, Nafarroak polizien arloko eskumen batzuk eskuratuak dituela ulertzea, gaur egun inola ere ez dituenak, parlamentu-talde honen nahia bestelakoa bada ere. Baina larriagoa dena da, beste aldetik, agerian uzten duela gober-

nu honek duen ezintasuna dagokigun eskubide bat eskura dezagun: Nafarroako polizia integralaren eredia eztabaidatzeko eskubidea.

Nafarroako Foruzaingoak Nafarroako Polizia izan behar du, eta bere izaeran, eskumenetan, eginkizunetan, banaketa geografikoan eta giza-eta gauza-baliabideetan poliziaren arloko zerbitzu oso eta erabatekoaren zerbitzu gisa eratu behar da.

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko (LORAFNA) 51. artikulua aitortzen dituen eskumenen arabera eta Konstituzioaren 148.1, 223 eta 148.2 artikuluen babesean, 149.1 eta 293. artikuluekin eta lehen xedapen gehigarriarekin duten lotura eta guzti, Nafarroako Gobernuak sustatu behar du Foruzaingoa Nafarroako polizia integral gisa era dadin, eta horretarako behar diren zuzemenak egiten ditu Estatuko Administrazioarekin dagokion negoziazioa izan dadin; negoziatio horretan aztertuko dira, batetik Nafarroak poliziaren eskumenak bereganatzea, eta bestetik Nafarroarentzat horrek dakarren zama aitortzea, kostuak Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko kupoari egotziz. Hori guztia zerbitzuen transferentzien prozesuaren eta Transferentzia Batzarraren eginkizunen barnean.

Era berean, amore ematen da presakoa den zerbaiten aurrean: guztiz beharrezkoa eta eskuragarria da Nafarroako Foruzaingoak trafikoaren arloko eskumenak berehala bere gain hartzea.

Testuari dagokionez, ez gatoz bat, funtsean, bera artikulatzen deneko testuinguruarekin, eta parlamentu-talde honek gabezia larriak antzematzen ditu lanpostu batzuetan sartzerakoan merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeari dagokionez; era berean, gai askotan, eginkizun polizialaren garapenetik oso urruti dago proiektua, udaltzaingoei buruzko artikuluetan. Funtzionamenduaren kontzepzioari eta zuzendaritza eta gogoeta organoei dagokienez, gure ustez, proiektuan nola egituratzen den begiratuta, Foruzaingoaren Kontseilua ez dio inongo berritasunik ekartzen Foruzaingoaren lan baldintzen negoziatioari, eta, gainera, gutxitu egiten dira legeak erakunde sindikalei aitortzen dizkien ordezkari eginkizunak. Edukia eman behar zaie Mahai Sektorialari eta administrazioaren eta funtzionarioen arteko harremanei.

Horregatik guztiagatik, eta gai honetan ere Foru Hobetzea sakonki eraberritzeko beharrezko berriro ere azpimarratuz, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen diogu erabaki dezala Nafarroako Gobernuari itzultzea Nafarroako polizia buruzko foru lege proiektua.

3. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du. Hona arrazoiak:

Lege proiektu hau planteatu da Nafarroako Gobernuak aurreko legea garatu eta bete gabe; horrek Nafarroako Gobernuari berari egozteko den perspektiba falta larria sortzen du.

Lege proiektuaren edukia ez da egokia XXI. mendean integrala izatea nahi den polizia baterako.

XXI. mendeko poliziaren lehenbiziko ezaugarriak eta ezaugarri garrantzitsuenak izan behar du polizia zibila izatea, eta horren aurrean, 30. artikuluko 6. idatz-zatiko bigarren lerrokadako xedapena bezalakoek, non lanpostu hutsen % 30 gordetzen baitzaizkie Estatuko segurtasun indar eta kidegoetako eta indar armatuetako ofizial eta aginteentzat, irizpide atzerakoi eta zaharkituak izateaz gainera, funtzio publikoaren Estatutuan eta Konstituzioan bertan ezarritakoaren aurkako desberdintasuna dakarte. Gainera, xedapen hori 26. artikuluko 1. idatz-zatian hots handiz aldarrikaturiko printzipioaren guztiz aurkakoa da.

Itxura batean lege honetan arautu nahi diren merezimendu-lehiaketak ahalmeneko irizpideen menpe geratzen dira, eta gehienetan berdintasun printzipioen aurkakoak dira.

Gainera, Nafarroako Foruzaingoak une honetan sekula baino gehiago, bere kideetako ordezkari sindikalekiko sintonia eduki behar du, eta lege proiektu honek ez du oinarritzko baldintza hori bertan ezartzen.

Gainera, lege proiektu honek ez ditu lantzen eta ez ditu konpontzen bigarren enpleguaren oinarritzko gaiak, ez eta Foruzaingoko kideei ere eman behar zaien aukera, hain zuzen ere administrazioaren beste lanpostu eta zentro batzuetara sartu ahal izatekoa.

4. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, gobernuari itzul dakion eskatzen duena.

Zioak: Nafarroako poliziei buruzko foru lege bat iragarri zenean, parlamentari honek itxaropena izan zuen, alegia, uste izan zuen Nafarroako Gobernuak, azkenik, eginbeharrak eginak zituela eta Nafarroako poliziei buruzko arauen sakoneko erreforma bat egin behar zuela.

Uste izan nuen lege honetan –berriki onetsitako Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legean ez bezala– gobernuak behin betiko planteatuko zuela Nafarroako polizia eredu berri bat, Foruzaingoa egiaz Nafarroa osorako polizia integrala bihurtuz eta udaltzaingoetako kidego ezberdinen arteko koordinazio irizpideak ezarriz. Horri dagokionez, espero nuen proiektu honek Nafarroako Foruzaingoa prestatzea polizia arloko esku-men guztiak onartzeko, eta prestatzea, halaber, etorkizunean Nafarroako eskualde guztietara zabaltzeko. Gaur egun kontrakoa gertatzen ari da, polizia-etxeak irekitzen ari baitira leku batzuetan, baina polizia-eginkizun guztiak Nafarroa osoan hartu gabe; gainera, ez da eskatzen ari estatuko segurtasun indar eta kidegoak atzerantz biltzea.

Gainera, espero nuen lege proiektuan Nafarroako polizietarako eredu orokorra definitzea, udaltzaingo kidegoak koordinatzea, kontuan hartzea Nafarroako udal gehienek ezin dutela polizia kidego propioa eduki, eta polizia kidegoak mankomunitatei atxikitzeko aukera planteatzea.

Azken batean, Nafarroarako polizia eredu berria planteatzea, Nafarroako herritarren eskubiak babesteko helburuarekin.

Aitzitik, aurkeztutako proiektuarekin Nafarroako polizien egungo arautzea aldatu nahi da berrikuntza handirik egin gabe, hain zuzen ere egungo legedia arautzeko ahaleginik ere egin ez denean. Adibidez, urteak daramatzat Nafarroako aurrekontu orokorreari zuzenketa bera aurkezten, polizientzat eta suhiltzaileentzat lan arriskuen prebentziorako plan bat eskatzen, halakorik ez baitago; bada, proiektu honetan ezertxo ere ez horri buruz.

Azkenik, deigarria da gobernuak proiektu hau aurkeztu izana Foruzaingoaren Langileen Batzordean ordezkaturik dauden sindikatu guzti-guztiak aurka zeudenean.

Horregatik guztiagatik eta, batez ere, proiektuaren funtsezko alderdiak berraztertu behar direlako, gobernuari itzul dakiola eskatzen dut, Parlamentu honetan Nafarroako poliziei buruzko foru lege proiektu berri aurkez dezan, zioen azalpenean eskatutakoa bilduko duena eta polizia-funtzionarioen ordezkari gehienen adostasunarekin.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen du.

Zioak: Talde sozialistaren ustez, gaur den egunean ezin da poliziei buruzko legearen legegintzatrámitea abiarazi.

Gure ustez lege proiektu horrek ez dio inongo onurarik ekartzen egungo legediari. Lege indardunak oraindik ere garatu ez diren alderdiak baditu, eta polizia kidegoekin adosturiko alderdiak jasotzen ditu; orain aldatu egin nahi da, inongo arazorik ekarri ez badu ere.

Gobernuak azken garau hauetan legegintzaren arloan egiten ari den erakustaldiak ez du justifikatzen beste lege bat egitea; bestetik, aurkeztutakoak ez du berritasunik ekartzen, eta aztertzen dituen alderdi bakarrak polizia-funtzionarioen egoera pertsonala da, eta horrekin berriz ere zabaltzen ditu barne izaerako gai batzuk, garai batean indar politikoen eta funtzionarioen kidegoaren –ukitutako polizien– artean adostasun handiz itxikitakoak.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa zehaztea lege baten helburua koordinazio normatibo eta administratiboa dela.

Baina, batez ere, erabat desegokia da foru lege proiektu honetan albienteak eta Nafarroako Udaltzaingoko udaltzain laguntzaileak sartzea. Horren arrazoia da, besteak, beste, hurrengo idatz-zatian polizia kidegoen langileen estatutua aldatzea aurreikusten dela.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru poliziak foru administrazioaren kidego berariazko zat hartu behar dira, baina gainerako funtzionarioek dituzten berme eta baliabide berezkoak izan behar dituzte. Hori guztia langileen estatutu batek hori dena jasotzea nahi izatea ez da egia, eta, bigarrenik, ez da zuzena.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko f) eta g) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, albienteak eta udaltzain laguntzaileak ez dira poliziei buruzko foru lege proposamen batean agertu behar.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 2. artikulua honela geratuko da idatzita:

“2. artikulua. Definizioak.

1. Foru Lege honetan Polizia Kidegotzat hartuko dira herritarren segurtasuna mantentzen dihardutenak, funtzionario publikoek osatuak, izaera zibilekoak eta egitura hierarkikokoak.

2. Nafarroako Gobernuaren menpe dauden polizia langileak kidego bakarrean bilduko dira, eta kidego horren izena Nafarroako foru polizia izanen da.

3. Polizia zerbitzu eta langileak dituen Nafarroako toki entitate bakoitzean, horiek kidego baka-rean bilduko dira.”

Zioak: Proiektua sinplifikatzea eta testuari ekarpenik egiten ez dioten ustezko definizioak ezabatzea; izan ere, ondorengo xedapenak errepikatzen dituzte, edo definizio gaia definizioan ez dela agertu behar dioen printzipioa hausten dute. Askoz ere argigarriagoa da indarrean dagoen testu bateginaren enuntziatua.

5. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

2. artikulua, a) letra. “Polizia kidegoa” segurtasun publikoaren ardura duten zerbitzuen multzoa. Kidegoetan poliziaburua, poliziak, fakultatiboak eta, batzuetan, polizia laguntzaileak izanen dira, izaera zibila izanen dutenak. Kidegoak antolaketa eta egitura hierarkizatuak izanen ditu.

Zioak: Definizio argiagoa ematea, “unitate” konzeptua zehaztugabe samarra baita.

3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 3. artikulua honela geratuko da idatzita:

“3. artikulua. Nafarroako polizia kidegoen helburua.

Hauexek dira Nafarroako polizia kidegoen helburuak:

a) Konstituzioak eta gainerako ordenamendu juridikoak aitortutako eskubide eta askatasunak modu askean balia ahal izan daitezen zaintzea.

b) Herritarren segurtasuna, lasaitasun publikoa eta legearen aplikazioa bermatzea.

c) Delinkuentziari aurre egitea eta haren kontra borrokatzea.

d) Herritarrei laguntzea, bereziki larrialdi kasuetan.”

Zioak: Zuzenketa teknikoak, Konstituzioaren xedapenetara egokitzeko.

7. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari beste letra bat, a-lehena), gehitzea proposatzen dugu.

“a-lehena): Printzipio demokratikoak, herritarren bizikidetzeta eta pertsonen berdintasuna zaintzea.”

Zioak: Gure ustez, printzipio demokratikoak beste edozer baino lehenago aipatu behar dira.

4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

8. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko a) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Poliziaren jardunaren oinarrizko printzipio gisa ezartzea Konstituzioa eta Foru Hobetzea betetzea eta betearaztea erredundantzia eta arauak egiterakoan gehiegikeriaz jokatzeko da, manu hori eztabaidagarriak diren interpretazioen menpe baitago.

9. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

4. artikuluko 1. idatz-zatiko lehen lerrokada. “Nafarroako polizia kidegoen kideek, esleitu zaien egitekoa betetzeko, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 2001eko irailaren 19an hartutako REC (2001) Gomendioaren bidez poliziaren etikari buruzko Europako kodean ezarritakoarekin arabera eta legeen aplikazioaren ardura dutenentzat Nazio Batuen Erakundeak onetsitako jokabide zuzenaren kodearen arabera jardunen dute. Halaber, oinarrizko printzipio hauek beteko dituzte.”

Zioak: Nazioarteko arau garrantzitsu horiek Nafarroako poliziei buruzko araudia sartzeko.

10. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 4. artikulua honela geratuko da idatzita:

“4. artikulua. Nafarroako polizia kidegoetako kideen jardunaren oinarrizko printzipioak.

Nafarroako polizia kidegoetako kideek beren eginkizunak betetko dituzte Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritako jardunaren oinarrizko printzipioei jarraituz.”

Zioak: Idazketa erraztea eta interpretazio arazoak saihestea; izan ere, proiektuan lege organikoan ezarritako printzipio berak errepikatzen dira, baina idazketan aldaketa txiki batzuk egin dira.

11. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko p) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

p) Nafarroako poliziek beren lanbidearen jardunean egindako delitu edo falta diren egintzen erantzule zuzenak izanen dira, deusetan galarazi gabe Administrazio Publikoari egokitzeko ahal zaien erantzukizun subsidiarioa edota ondare-erantzukizuna.

Zioak: Polizia funtzionarioaren erantzukizun pertsonal eta zuzena soilik aplikatu behar da Zigor Kodeko arauak aplikagarri direnean. Arlo penalean zigortzen ahal den dolo edo errurik ez bada, ezin da erantzukizun pertsonalik egotzi.

Proiektuaren testutik ondoriozta daiteke erantzukizun pertsonala aplikagarria dela “erantzukizun zibila” dagoen kasuetan ere.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Hona proposatzen dugun testua:

“a) Dagokien lana segurtasunaren arloko esku-mena esleiturik duten agintari publikoen agindupean eginen dute, eta haien erregelamendu organikoek ezartzen duten autonomia operatibo gradua izanen dute.

Zioak: Proiektuan jasotzen den “autonomia operatiboaren” ideia kezagarria da eta ez dator bat zuzenbide estatuaren printzipioekin.

13. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“b) Aginte kate bat behar bezala mugatua izan beharko du.”

Zioak: Idazketa okerra izateaz gain –singularra- erreferentzia-, erantzukizun pertsonala zigor arlori mugatu behar da.

14. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

5. artikulua. b) “Aginte kate bat behar bezala mugatua izan beharko du. Kidego bakoitzeko kide guztiek, beren hierarkia maila edozein dela ere, beren egintzen, ez-egiteen eta menpekoei ematen dizkieten aginduen erantzule izan beharko dute.

Zioak: Polizia kidego bat baino gehiagoz ari da.

15. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“d) Maila guztietako kideen hautapena..., kidegoko langileek gizarteari bere zerbitzura daudela erakusteko.”

Zioak: Prestakuntzarekin zerikusia duten gaiak ezin dira “kidegoak antolatzeko irizpideak” izan.

16. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari g) letra berria eransteko zuzenketa.

“g) Agintari judizialen eta, oro har, botere judizialaren agindu guztiak beteko dituzte eta eskatutako laguntza guztia emanen diete”:

Zioak: Botere judizialari laguntzea, betebeharr generikoa izateaz gain, polizia integralaren betekizuna ere bada.

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

17. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Berrito ere, izen aldaketa ez dago arrazoitua. Nahasmendua sortuko du, eta gainera gehiegizkoa den graduazio edo eskala sortzea aurreikusten du (7 maila), kidegoko burutik hasita polizia soila arte.

Horretaz gain, eta adierazi dugun bezala, ez gaude ados udaltzain laguntzaileak izatearekin. Bestalde, egitura horretan ez dira albienteak ageri, baina horiek ere lege proiektu honetan araututa daude. Legearen figura desegituratua ote?

18. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 6. artikulua honela geratuko da idatzita:

“6. artikulua. Egitura.

1. Nafarroako polizia kidegoak honela antolatuko dira:

a) Kidegoko burua.

b) Ondoko lan kategoria guztiak edo batzuk: Komisarioa, inspektorea, inspektoreordea, sarjentua, kaboak eta polizia.

2. Polizia kidego guztietan izan behar dira nahi-taez kaboak eta poliziak. Gainerako postuak plantillaren tamainaren eta zerbitzuaren beharizanen arabera sortu ahalko dira.”

Zioak: Idazketa sinpletzea. Ez dago justifikatua dauden postu guztiak aldatzea; proiektuak ez du etorkizunerako nahasmendua sortu besterik egiten, urte askotako antzintasuna duten izenak aldatzen baititu. Justifikatuta dagoen bakarra da ofizialen postuen ordezkari komisarioenak sortzea, polizia nazionalaren kidegoko postuekin izan daitezkeen nahasmenduan saihesteko. Bestalde, bidezkoa da administrazio publiko bakoitzari autonomia ematea haren plantilla organikoa egokitzen josten dituen postuekin sortzea; bereziki, lege proiektuak toki entitateen autonomia gehiegi mugatzen du, eta berriro Nafarroako Gobernuaren erabakien menpe jartzen ditu erabat antolaketaren arlokoak diren gaietan.

**7. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

19. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 7. artikulua honela geratuko da idatzita:

“7. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpeko erakunde armatua eta zibila da, egitura eta antolaketa hierarkizatuak dituena.

2. Nafarroako Foruzaingoa polizia integrala da, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan betetzen ditu bere eginkizunak, deusetan galarazi gabe ordenamendu juridikoak udaltzaingoei eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei esleitzen dizkien eskumenak.

Zioak: Testua hobetu eta erraztea.

20. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluari beste idatz-zati, 4.a, bat gehitzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“4. Nafarroako Foruzaingoa kidego gisa antolatu dago, eta polizia integrala izateko bokazioa du.

Zioak: Gure ustez, polizia integrala izateko desideratuma edo asmoa Nafarroako Foruzaingoa kidegoaren izaeraren baldintzen artean egon behar da.

8. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

21. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“1. Nafarroako Foruzaingoa goreneko agintea Nafarroako Gobernuko lehendakariari dagokio.

Zioak: Agintea pertsonalizatua izan behar da.

22. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“2. Nafarroako Foruzaingoa goi zuzendaritza eskuordetua kontseilari eskudunari dagokio.”

Zioak: Agintea dagokion kontseilariaren esku-menaren izaera argitzea.

9. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

23. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“3. artikuluan ezarritako helburu guztiak izanen ditu Nafarroa osoan.”

Zioak: Helburuak eta eginkizunak bereizteak nahasmendua sortzen du.

Horretaz gain, proiektuaren testuan jasotako kontua zehatzak ez dira lege baten xede, foru dekretu edo arau osagarri batenak baizik.

24. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

9. artikulua. c) “Foru Komunitateko agintarien babesaz eta segurtasunaz arduratzea”

Zioak: “Zaintza” esamoldea anbiguala izan daiteke. Ulegarria da agintariak babestea, ez ordea haiek zaintzea.

25. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

9. artikulua. d) “Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen eta bere entitate instrumentalaren menpe dauden pertsona, eraikin eta instalazioen babesaz eta segurtasunaz arduratzea”

Zioak: “Zaintza” esamoldea anbiguala izan daiteke.

26. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko n) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

9. artikulua. n) Beste Segurtasun Indar eta Kidego batzuekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, legeek ezarritako kasuetan.

Zioak: Foruzaingoa ere segurtasun indar edo kidegoa da.

10. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

27. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako Foruzaingoa foruzainburuaren menpean egonen da. Foruzainburuak Nafarroako Lehendakari Departamentuko zuzendari orokorraren kategoria izanen du.

Zioak: Haien "burua" esamoldea, okerra izateaz gain, nahasgarria da.

11. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

28. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

"1. Foruzainek laneko identifikazioa eraman beharko dute, eta, zehazki, egiaztatu beharko dute edozein herritarrek hala eskatzen dietenean beren lan harremanetan.

2. Foruzainak laneko arauzko jantzia erabiliko du foruzaina dela ezagutu behar zaionean.

3. Agurrak eta ohoreak kidegoaren izaera zibilarekin bat etorriko dira, eta horiei buruzko arauak kontseilari eskudunak emanen ditu, foru agindu bidez.

4. Foruzaingoak, polizia integrala den aldetik, polizia judizialaren eginkizunak ere beteko ditu."

Zioak: Foruzaingoaren izaera zibilar lehentasuna eman behar zaio, jada zaharkituta dagoen beste izaera batekin izan daitezkeen nahasmen-
duak saihesteko.

12. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua amaieran hau gehitzeko zuzenketa:

12. artikulua amaiera. "Halaber, ebasketak saihesteko zorroak eta urtean egin beharreko tiro praktikak arautuko ditu":

Zioak: Polizia kidegoetako funtzionarioek beraien eskatzen dute ebasketak saihesteko zorroak erabili eta tiro praktikak ahal izatea.

13. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

30. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Polizia judizialaren baldintzak polizia integralarenak dira, eta ezin du departamentu edo kidego berezia osatu, nahiz eta eginkizun berarizkoak izan.

14. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

31. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 14. artikulua honela geratuko da idatzita:

"14. artikulua. Udaltzaingoak sortzea.

1. Bost mila bizilagun eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako udalek beren Udaltzaingoak sortzen ahalko dituzte.

2. Halaber, udaltzaingoak sortzen ahalko dituzte toki administrazioari buruzko foru araudiari jarraikiz udal elkarteen bidez ezarritako toki entitateak, betiere horretarako eskumena badute eta guztien artean bost mila bizilagun eskubidedun edo gehiago badituzte.

3. Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake aurreko zenbakian adierazitako toki entitateetan udaltzaingoak eratzeko, bost mila bizilagun baino gutxiago izanda ere, herritarren segurtasuna dela-eta beharrezkoa edo egokia denean."

Zioak: Indarrean dagoen araudian aitortzen den toki entitateen autonomia mantentzea, eta udalerrak izatea udalez gaindiko poliziak sortzeko erabakia hartzen dutenak, eta ez Nafarroako Gobernuak.

32. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 14 bis, gehitzeko zuzenketa. Udalez gaindiko poliziak:

“1. Beren polizia kidegoa mantentzeko sortzen diren elkarte izaerako toki entitateak, edota beste berariazko helburu batzuen artean halako kidego bat sortzea helburu dutenak borondatezko mankomunitateak izanen dira.

2. Mankomunitate horien estatutuetan espresuki ezarriko da zein den polizia kidegoaren agintea izanen duen eta polizia burua edo kargu baliokidea izendatuko duen agintaritzak bakarra.

3. Mankomunitatearen menpeko polizia kidegoak entitatea osatzen duten eta zerbitzuari atxikita dauden udalerrri edo kontzeju guztietan jardunen du.

Zioak: Aukera hori aurreikusita zegoen foru dekretuan, eta, gure ustez, beharrezkoa da aurreikustea.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA****33. ZUZENKETA****ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako udaltzaingoek lege proiektu honen 3. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen dituzte”:

Zioak: Helburuak edo eginkizunak jada ezarrita daude artikuluko horretan.

**16. ETA 17. ARTIKULUEI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK.****34. ZUZENKETA****ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16 eta 17. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udaltzain laguntzailea ez da sortu behar, ez bailuke izanen agintari izaerarik; albi-

teak, aldiz, ez lukete agertu behar lege proiektu honetan, bere egituraren ere ez baitira azaltzen.

35. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legeak figura hori arautzen duen modua ikusirik, uste dugu herritarrei eman beharreko zerbitzuaren kalterako izan daitekeela.

36. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

16,2. artikulua. “Udaltzain laguntzaileek kidego funtzionarioei laguntzeko lanak beteko dituzte, eta haien zuzendaritzapean arituko dira. Langile horiek beteko dituzten eginkizunak soilik izanen dira ondasunen, zerbitzuen, instalazioen eta egoitza ofizialen zaintza, trafikoa arautzeko jarraituz bide-trafikoa antolatzea, herritarren sorospen-eginkizunetan eta babes zibilaren arlokoetan parte hartzea eta administrazio izaera duten arauak bete daitezkeen zaintzea. Eginkizun horietarako, agintaritzaren agentetzat hartuko dira.”

Zioak: Udaltzain laguntzaileek bete ditzaketen eginkizunak argi eta garbi gogoraztea, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian ezarrita dauden moduan.

37. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16.6. artikuluarik lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

16,6 artikuluko lerrokada berria: “Halaber, ezin izanen du udaltzain laguntzaile gehiagorik kontratatu lan postu huts hori bete arte”

Zioak: Udaltzain laguntzailearen figura udalerrri batzuetako unean uneko beharrezko arintzeko soilik erabil daiteke, baina denboran zehar betikotzea saihestu behar da.

38. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16.7 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

16.7. artikulua. "D maila" dioen lekuan, "C maila" esan behar du.

Zioak: Udaltzainak ordeztu eta haien eginkizunetatik asko bete beharko dituztenez, gure ustez, C mailan sartu beharko lirateke.

**18. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

39. ZUZENKETA**ARALAR**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udalerrri bakoitzak hautaketa langileak kontratatzeko arau orokorreari jarraikiz egin beharko du.

**19. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

40. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

19. artikulua. Antolamenduaren erregelamendua.

Udaltzaingoa duten toki entitateek hura antolatzeko erregelamendua prestatuko dute. Horretan kategoriak edo mailak eta, kasua bada, kidegoko unitateak agertuko dira. Halaber, unitate bakoitzaren berriazko eginkizunak eta kidego horietan sartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarriko dira."

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da antolamenduaren erregelamendua unitateen eginkizunak eta unitate horietan sartzeko bete behar diren baldintzak ezartzea.

**20. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

41. ZUZENKETA**ARALAR**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

"2. Udalak izendatuko du udaltzainburua."

Zioak: Alkateak edo toki entitateko buruak udaltzainburua izendatzea behin-behinekotasuna, eta, horrenbestez, segurtasun falta eta menpekotasuna eragiten dituen araua da.

42. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Bigarren lerrokadaren amaieran honako testu hau gehitzea proposatzen da:

"Izendapena udalerrriko polizia kidegoko plantillako maila goreneko funtzionarioen artean edota beste udaltzaingo edo segurtasun kidego batzuetako funtzionarioen artean egingen da. Izangaiek esperientzia egiaztatua izan beharko dute aginte eginkizunetan eta udalerrriko polizia kidegoko maila gorena duen funtzionarioaren maila edo kategoria bera edo goragokoa izan beharko dute."

Zioak: Lege testua hobetzen du.

**21. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

43. ZUZENKETA**ARALAR**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa.

"1. Udaltzainek laneko identifikazioa eraman beharko dute, eta, zehazki, egiaztatu beharko dute edozein herritarrek hala eskatzen dietenean beren lan harremanetan.

2. Udaltzainak laneko arauzko jantzia erabiliko du foruzaina dela ezagutu behar zaionean.

3. Agurrak eta ohoreak kidegoaren izaera zibilarekin bat etorriko dira, eta horiei buruzko arauak kontseilari eskudunak emanen ditu, foru agindu bidez.

4. Udaltzaingoak, toki polizia den aldetik, polizia judizialaren eginkizunak ere beteko ditu.”

Zioak: Udaltzaingoaren izaera zibilar lehentasuna eman behar zaio, jada zaharkituta dagoen beste izaera batekin izan daitezkeen nahasmen-
duak saihesteko.

44. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

21.3. artikulua. “Udaltzaingoetako kideek, beren eginkizunetan dihardutela, erregelamenduen bidez ezartzen diren armak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen ebasketak saihesteko zorroak eramanen dituzte. Halaber, Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen tiro praktikak eginen dituzte.”

Zioak: Polizia kidegoetako funtzionarioek beraien eskatzen dute ebasketak saihesteko zorroak erabili eta tiro praktikak ahal izatea.

23. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

45. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22 eta 23. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Foruzaingoko funtzionarioek Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan egon behar dute, eta toki entitateetako polizia kidegoetako funtzionarioek, berriz, kasuan kasuko udaleko plantilla organikoan egon behar dute.

Plantilla organiko bereziak egiteak, bazterkeria eragiteaz gain, zailak edo ezinezkoak egiten ditu bigarren enplegu konponketak.

46. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 23. artikulua kenzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa eta proiektuko beste xedapen batzuk errepikatzen ditu. Bestalde, udaltzain laguntzaileak ez dira poliziatzat hartu behar.

24. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

47. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24.2. artikuluko bigarren lerrokada kenzeko zuzenketa.

Zioak: Zuzendari nagusi batekiko menpekotasun organiko eta funtzionala izatea, eta haren maila eta araubide juridikoa izatea disfuntzionala da. Erabaki behar dena da zuzendari nagusien maila ematen zaien ondorio guztietarako; bestela, ez zaie maila hori eman behar.

48. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

1. “Foruzaingoaren buruaren kargua izendapen librekoa da eta zuzendari nagusiaren maila izanen du. Izendapena Nafarroako Gobernuak eginen du, kontseilari eskudunak proposaturik.

2. Udaltzainburuaren karguak A mailako funtzionarioen maila izanen du. Hautapena eta izendapena udalak eginen du, funtzio publikoaren estatutuaren ezarritakoari jarraikiz.”

Zioak: Foruzaingoaren burutza eta udaltzaingoaren burutza ezin daitezke parekatu. Lehenak izendapen politikoko kargua izan behar du, eta udaltzainburutzak izendapen egonkorreko funtzionarioek bete behar dituzte.

49. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

24.1. artikulua. "Polizia kidegoetako burutza izendapen librearen bidez beteko da, segurtasun kidego eta indarretako jarduneko funtzionarioen artean. Izendapena eta kargu-uztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira."

Zioak: Gure ustez, egokia da polizia kidegoetako burua polizia kidegoetako profesional bat izatea, hau da, edozein polizia kidegotako funtzionarioa; izan ere, poliziaren profesionalizazioak hala eskatzen du.

Edozein pertsona, behin-behineko langile gisa, polizia kidegoko burua izan ahal izateak zalantzan jartzen du proiektuan bertan aurreikusitako antolamenduari buruzko printzipioetako bat; hain zuzen, independentzia operatibo nahikoa. Profesionala ez den pertsona bat, izendatua izan den bezain modu askean kargutik ken daitekeena, kidego hierarkizatu baten buru jartzea ez dator bat bi printzipio horiekin, hau da, profesionalizazioaren eta independentzia operatibo nahikoaren printzipioekin. Gure proposamenarekin, printzipio horiek hobeto beteko dira.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 25. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Polizia kidegoetako burua goi kargu gisa egituratzen bada, aurreko artikuluan ezartzen den moduan, dagokion batera-eraztasunen araubidea goi karguei dagokiena izanen da, automatikoki.

**28. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****51. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko 1. a) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nazionalitatea ezin daiteke betekizun baztertzaila izan; izan ere, armadetan ere ez da

hala izaten. Gainera, hori Europar Batasuneko printzipioen aurkakoa litzateke.

52. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko 1. e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Pertsonen berdintasuna errespetatzen ez duen baldintza baztertzaila da, eta, horrenbestez, Konstituzioaren aurkakoa da.

53. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko f) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa legean ezartzea, zigor eta administrazio arloetako arauen arabera-ko desgaitzeek jada beraiekin baitakarte ezintasun hori.

54. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 28. artikuluko 1. idatz-zatiko b), e) eta g) letrak honela geldituko dira:

"b) Adinez nagusia izatea eta erregelamendu bidez ezarritako adina ez gainditzea"

"e) Erregelamendu bidez ezartzen den gutxieneko garaiera izatea"

"g) Erregelamendu bidez ezartzen den ibilgailu mota gidatzeko baimena edukitzea"

Zioak: Eginkizun publikoetan aritzeko eskubi-dea mugatzen duten zehaztapenak argi eta garbi ezarri behar dira ordenamendu juridikoan. Deialdiak, jurisprudenziak behin eta berriro adierazi duenez, ez dira arau juridikoak; aldiz, administrazio egintza soilak dira, hartzaile zehaztu gabea eta anitza dutenak. Beharrezkoa da artikuluko honetan aipatzen diren zehaztapenak foru legea garatzeko erregelamenduetan ezartzea.

55. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko 1.f) letra aldatzeko zuzenketa.

“Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez izatea.”

Zioak: Kondenatua izatea ezin da baztertzeko kausa gisa ezarri.

**30. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

56. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

30. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“Foruzaingoaren kidegoko edozein mailako lanpostuetan sartzeko, funtzio publikoaren estatus-tuan eta Nafarroako foru administrazioko langileen plantilla organikoan ezarritakoari jarraituko zaio.

Foruzaingoko kideek eskubidea izanen dute foru administrazioko beste departamentuetako lanpostuak eskuratzeko barne-igoerarako lehiaketetan parte hartzeko, foruzaingoko postuetan zortzi urte baino gehiago eman ondoren.

Barne-igoera Nafarroako foru administrazioko plantilla orokorrean ezarritako foruzaingoko lanpostu hutsak betetzeko lehiaketak egin aurretik eginen da.

Zioak: Lehenik eta behin, foruzaingo zibila Nafarroako foru administrazioan txertatua egon behar da.

Bestalde, bigarren jarduera egiteko konponbide egoki bakarra da foruzainei administrazioko beste departamentu batzuetan sartzeko aukera proposatu eta ematea, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

Azkenik, ezin da aipatzeke utzi seigarren. idatzatiko bigarren lerrokada. Bertan demokraziaren eta Konstituzioaren aurkakoa eta batez ere irrigarria den eta batzuetan iraingarria izan daitekeen erreserba ezartzen da; hain zuzen, sarrera sariduna estatuko segurtasun kidegoetako eta armadako kideentzat.

57. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 30. artikulua honela geratuko da idatzita:

“30. artikulua. Kategorietan sartzea.

1. Polizia kidegoetako lanpostu hutsak polizia kidegoetan sartzeko hautaketa probak eginez beteko dira. Sartzeko prozeduran honako proba baztertzaila hauek eginen dira:

a) Egoera fisikoaren probak.

b) Kultura orokorreko probak, eskatutako ikasketak mailarekin bat heldu direnak.

c) Proba psiko-teknikoak izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesiografikoari egokitzen zaizkion neurtzeko.

d) Proba medikoak

e) Prestakuntza ikastaroa.

2. Kaporal eta inspektoreordearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheragoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa bidez. Oposizio-lehiaketa horretan, hauek gainditu beharko dira: merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheragokoan gutxienez ere bi urteko antzintasuna izatea eskatuko da.

3. Sarjentu eta inspektore lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheragoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa bidez. Oposizio-lehiaketa horretan, hauek gainditu beharko dira: merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheragokoan bi urteko antzintasuna, gutxienez, eta lanpostuari dagokion titulu akademikoa izatea eskatuko da. Titulu akademikoa ez edukitzea lanpostu zuzenki beheragokoan bost urteko antzintasuna izatearekin bete ahalko da.

4. Arestiko bi idatz-zatietan aipatzen diren lanpostuak betetzeko deialdietan polizia kidego bereko kideentzako barne igoerako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat deialdiko gainontzeko lanpostuekin, Nafarroako polizia kidego guztietako kideei irekia, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Txanda irekian betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkie. Idatz-zati honetan ezarritako portzentajea aplikatzeko, hiru lanpostu hutsetatik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

5. Udaltzaingoen kidegoetako komisarioaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketaren bidez beteko dira, bi txandatan, bata barne igoerakoa eta bestea irekia. Barne igoerako txandan Nafarroako edozein polizia kidegotako kideak lehiatu ahalko dira, inspektore lanpostuan, egiaz emandako zerbitzuetan, hiru urteko antzintasuna badute. Txandaren batean betetzen ez diren lanpostu hutsak beste txandakoei gehituko zaizkie. Idatz-zati honen aplikazioaren ondorioetarako, bi lanpostu hutsetatik lehendabizikoa barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

6. Foruzingoko komisarioaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, hiru txandatan:

a) Lanpostu hutsen ehuneko berrogei barne igoera txandan, Nafarroako polizia kidegoetako kideentzat, inspektorearen lanpostuan, egiaz emandako zerbitzuetan, hiru urteko antzintasuna badute.

b) Lanpostu hutsen ehuneko hogeita hamar txanda irekian, Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen buru, ofizial eta agintarientzat, A edo B taldeko lanpostu batean, egiaz emandako zerbitzuetan, bost urteko antzintasuna badute.

c) Lanpostu hutsen ehuneko hogeita hamar txanda irekian, A mailari dagokion ikasketa titulazioa badute.

Aurreko lerrokan ezarritako portzentajeak aplikatzeko, gertatzen diren hamar lanpostu hutsetatik lehendabizikoa, bigarrena, bosgarrena eta zortzigarrena barne igoera txandakoak izanen dira; hirugarrena, seigarrena eta bederatzigarrena Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoen buru, ofizial eta agintarientzako txanda irekikoak eta laugarrena, zazpigarrena eta hamargarrena txanda irekikoak. a) eta b) letretan aurreikusten diren txandetan betetzen ez diren lanpostu hutsak txanda irekikoei gehituko zaizkie.”

Zioak: Gaur egun indarrean dagoen lanbide promozio sistema mantentzea.

58. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

1. puntuan, lehen lerrokadaren atzetik hauxe gehitzea proposatzen da:

“Nafarroako polizia kidegoetan funtzionario gisa sartzeko izangaien hautapena deialdi publikoan iragarri beharreko oposizio bidez edo oposizio-lehiaketa bidez eginen da, objektibotasun, merezimendu eta gaitasun irizpideei jarraituz.”

Zioak: Lege testua hobetu egiten du.

59. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

30.2. artikulua. ...”eskatu ahalko da” dioen lekuan “eskatuko du” esan behar du.

Zioak: Funtzio Publikoaren Estatutuaren arabera, igoerako lehiaketetan nahitaezkoa da proba egitea; horrenbestez, ez dago arrazoirik lege honetan aukerakoa izateko.

60. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2tik 10era bitarteko idatz-zatien ordean honako testu hau txertatzea proposatzen da: 1. idatz-zatien ondoren gehitu:

“2. Kaporal eta inspektoreordearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheragoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa bidez. Oposizio-lehiaketa horretan, hauek gainditu behar dira: merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionalerako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Segurtasun Eskolak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheragokoan gutxienez ere bi urteko antzintasuna izatea eskatuko da.

3. Sarjentu eta inspektorearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira, beheagoko lanpostutik eta oposizio-lehiaketa bidez. Oposizio-lehiaketa horretan, hauek gainditu beharko dira: merezimenduen balorazioa, jakintza probak, izangaia lanpostuaren ezaugarri profesionaletarako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Segurtasun Eskolak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheagokoan bi urteko antzintasuna, gutxienez, eta lanpostuari dagokion titulu akademikoa izatea eskatuko da. Titulu akademikoa ez edukitzea lanpostu zuzenki beheagokoan bost urteko antzintasuna izatearekin bete ahalko da.

4. Arestiko bi idatz-zatietan aipatzen diren lanpostuak betetzeko deialdietan polizia kidego bereko kideentzako barne igoerako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat deialdiko gainontzeko lanpostuekin, Nafarroako polizia kidego guztietako kideei irekia, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Txanda irekian betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio. Idatz-zati honetan ezarritako portzentajea aplikatzeko, hiru lanpostu hutsetatik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.”

Zioak: Polizia kidegoetan sartzeko sistema aho batez onetsi zen eta gure ustez ez da aldatu behar.

61. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30.5 artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

30.5 b) artikulua. Lanpostu hutsen %20 Estatu-ko Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta autonomia erkidegoetako polizia kidegoetako ofizialorden eta asimilatuen arteko merezimendu lehiaketa bidez bete ahalko dira. Izangaiei hiru urteko antzintasuna eskatuko zaie abiapuntuko kategorian eta behar den titulazioaren jabe izan beharko dute. Prozedura hori gauzatzen ez bada, lanpostuak barne igoeraren txandari gehituko zaizkio.”

Zioak: Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoaren 43. artikulua hitzez-hitzez-kotasuna alde batera utzita, gaur egungo ikuspegitik zalantzagarria da lanpostu hutsak indar armatuetako kideentzat gordetzea. Foruzaingoaren agintek militarrentzat gordetzea kontraesanean dator kidego hori institutu zibil armatu izendatzearekin, halaber, armadako berariazko prestakuntza ez da egokia polizia moderno eta zibil bat zuzentzeko.

ez da egokia polizia moderno eta zibil bat zuzentzeko.

62. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30.5. artikuluko azken lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

30.5 artikulua, azken lerroaldea. ...”eskatu ahalko da” dioen lekuan “eskatuko du” esan behar du.

Zioak: Funtzio Publikoaren Estatutuaren arabera, igoerako lehiaketetan nahitaezkoa da proba egitea; horrenbestez, ez dago arrazoirik aukerakoa izateko.

63. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30.6 artikuluko bigarren idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa.

30.6 artikuluko bigarren lerrokada. “Aurrekoa gorabehera, lanpostu hutsen %30 deialdian eskatzen den titulazioaren jabe diren Estatu-ko Segurtasun Indar eta Kidegoetako ofizialentzat eta agintarientzat erreserbatuko dira. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostu hutsak beste txandako-iei gehituko zaizkie.”

Zioak: Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoaren 43. artikulua hitzez-hitzez-kotasuna alde batera utzita, gaur egungo ikuspegitik zalantzagarria da lanpostu hutsak indar armatuetako kideentzat gordetzea. Foruzaingoaren agintek militarrentzat gordetzea kontraesanean dator kidego hori institutu zibil armatu izendatzearekin, halaber, armadako berariazko prestakuntza ez da egokia polizia moderno eta zibil bat zuzentzeko.

64. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30.9 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

30.9. artikulua. “Deialdi batean parte hartzen dutenei dagozkien lanpostuen esleipena interesatuen nahien arabera egiten da, hautaprobetan lortutako ordenaren arabera. Artikulu honetako 5. eta 6. idatz-zatietan adierazitako kasuetan, barne-igo-

erako txandatik datozen izangaiek lehentasuna izanen dute Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetatik eta autonomia erkidegoetako polizia kidegoetatik datozenen aurretik, eta azken horiek gainerako izangaiei aurretik.”

Zioak: Indar armatuetao kideek postuak eskuartzeko aukera ezabatzeko zuzenketekin koherentzia gordetze aldera.

32. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

65. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 32. artikulua honela geratuko da idatzita:

“32. artikulua. Praktiketako funtzionarioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren eta Nafarroako polizia kidegoetako bateko funtzionarioak ez diren izangaia, ikastaroa egin bitartean eta, gaudituz gero, administrazioak behin betiko lanpostuaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, praktiketako funtzionarioak izanen dira. Erregelamendu bidez egoera horri dagozkion baldintza, eskubide eta betebeharrak arautuko dira.

2. Deialdia egiten duen administrazioak kasuan kasuko lanpostuari dagokion mailari dagozkien oinarrizko ordainsariak ordainduko dizkie praktiketako funtzionarioek..

3. Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren eta jada Nafarroako polizia kidegoetako bateko funtzionarioak diren izangaia zerbitzu aktiboan egonen dira; hala ere, baimen ordaindua izateko eskubidea izanen dute ikastaroak irauten duen bitartean, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzen arabera.”

Zioak: Testua hobetzea eta sustapen prozesuetan gerta daitezkeen egoera guztiak aurreikustea.

33. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

66. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egokia da gaur egungo izendapenak mantentzea.

67. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 33. artikulua honela geratuko da idatzita:

“33. artikulua. Mailak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak maila hauetan banatuko dira:

- a) Komisarioa eta inspektorea: A maila.
- b) Inspektoreordea eta sarjentua: B maila.
- c) Kaboa eta polizia: C maila.”

Zioak: Gaur egungo izendapenak mantentzea, komisarioaren izendapen berria izan ezik, nahasteak saiheste aldera.

68. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Honako honekin ordeztea proposatzen da:

“Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioak maila hauetan banatuko dira:

- Ofiziala eta inspektorea: A maila.
- Inspektoreordea eta sarjentua: B maila
- Kaboa eta polizia edo agentea: C maila.”

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa gaur egun dauden mailak aldatzea.

69. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 33. bis, gehitzeko zuzenketa.

Artikulu hau gehitzea proposatzen da:

“1. Aurreko artikuluan aipatutako maila bakoitzak zazpi gradu izanen ditu.

2. Polizia kidegoetan sartzen diren funtzionarioak kasuan kasuko mailaren 1. graduan sartuko dira, kasu hauetan izan ezik:

Administrazio publiko bereko funtzionarioak, polizia kidegoan sartzen badira, dagozkien gradua eta antzinatasuna gordeko dituzte.

Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako Erabakiak ezarritakoaren arabera, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu aitortuak dituztenei esleituko zaien gradua izanen da aitortutako zortzi zerbitzu-urteko gradu bat konputatzearen emaitza.”

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa gaur egun dauden mailak aldatzea.

**34. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****70. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 34. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege hau ez da toki egokia Nafarroako Segurtasun Eskola arautzeko; izan ere, administrazioko organo horren eginkizunek, polizia kidegoak ez ezik, beste segurtasun zerbitzu batzuk ere ukitzen dituzte.

71. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34.bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

34. bis artikulua. “Nafarroako polizia kidegoetako kide guztiak prestakuntza jasotzeko eskubidea dute, erregelamendu bidez ezarriko diren berdintasun baldintzetan”

Zioak: Polizia sindikatu guztiak eskatzen dute ikastaroetarako joateari buruzko erregelamendu bat egin dadin, berdintasun printzipioa –lehenik eta behin, prestakuntza jasotzeko, eta, horren ondorioz, lanbide karrera egiteko– ez urratzeko.

**35. ETA 36. ARTIKULUEI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK.****72. ZUZENKETA****ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35 eta 36. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 30. artikuluko testu berrian jasota daude.

73. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 35. artikulua honela geratuko da idatzita:

“35. artikulua. Sustapena.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen gora egiteko modua bitakoa da: kategoriaz igotzea, 30. artikuluan ezartzen diren prozeduren bitartez, edo graduz igotzea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuan ezarrita dauden arau orokorretan agindutakoaren bidez.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek barne igoyerako prozesuetan Nafarroako Administrazio Publikoen langileendako txanda murriztuan, edo, kasu bada, lekualdatze lehiaketan parte hartu ahal izanen dute, egiazko zerbitzuan 8 urte betetzen dituztenetik aitzina.”

Zioak: Funtzionarioen igotzeko aukerak hobetzea, eta ez murriztea, proiektuan egiten den moduan.

74. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 36. artikulua honela geratuko da idatzita:

“36. artikulua. Destinoen banaketa.

Polizia kidegoetan destinoen banaketa kasuan kasuko erregelamenduan ezartzen denari jarraikiz eginen da, plantilla organikoan finkatzen diren betebeharren arabera.”

Zioak: Destinoen banaketa egiteko prozedurak gainerako funtzionarioen kolektiboetarako oro har ezarritakoekin parekatzea, berariazko erregelamenduak aurreikusita.

75. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

36. artikulua aldatzeko zuzenketa.

36. artikuluko 2. lerrokadan kenketa egiteko zuzenketa: “Dena dela, kontseilari...” jartzen duenetik, amaierara arte.

Zioak: Destinoen banaketa egintza arautua izan behar da, eta ezin da utzi kontseilariaren nahierara; aldiz, destinoen banaketa baldintza objektiboen bidez egin behar da.

Ez da beharrezkoa.

38. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

76. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 38. artikuluko 3. idatz-zatia honela geratuko da idatzita:

“3. Plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerako multzoan sartu ahal izanzen diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik.”

Zioak: Artikulu honen edukia bete dadin bermatzea, bere eraginkortasuna “ad calendae graecas” utzi gabe.

77. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

38. artikuluan beste idatz-zati bat, 8.a, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

38.8. artikulua. “Bigarren jarduerako lanpostu berriak herri aldaketa badakar, onarpena borondatezkoa izanen da.”

Zioak: Gure ustez, bigarren jarduerako lanpostu baten onarpena borondatezkoa izan behar da, haren eginkizunak beste herri batean bete behar badira.

41. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

78. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 41. artikulua honela geratuko da idatzita:

“41. artikulua. Lansariak.

Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

1. Oinarritzko lansari pertsonalak, Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera.

2. Lansari osagarriak.

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostuaren osagarria.

c) Burutzaren osagarria.

d) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

3. Bestelako lansariak, Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera.”

Zioak: Testua erraztea eta gaur egun lanpostuaren osagarriaren eta burutzaren osagarriaren artean egiten den bereizketa mantentzea. Osagarriak aldatzea bereziki desegokia da; izan ere, gaur egun osagarri berriak aurreikusten dira, Mahai Nagusiaren hitzarmena aplikatzearen ondorioz, Konstituzio Auzitegiak erosteko ahalmena

mantentzeari buruz emandako epaiak betetze aldera.

42. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

79. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 42. artikulua honela geratuko da idatzita:

“42. artikulua. Lansari osagarriak.

1. Berariazko osagarria Nafarroako polizia kidegoetako kide guztiei ordainduko zaie eta haren gehieneko zenbatekoa kasuan kasuko mailako hasierako soldataren 100eko 55 izanen da.

2. Lanpostuko osagarria eginkizun espezializatuak betetzen dituzten unitateak dauzkaten polizia kidegotan aplikatuko da, unitate bakoitzari atxikitako eginkizunek eskatzen duten zailtasun, dedikazio, erantzukizun edo prestakuntza tekniko bereziaren mailaren arabera. Gehieneko zenbatekoa dagokion mailako hasierako soldataren ehuneko 75 izanen da.

3. Burutzako osagarria unitate organiko baten burutza atxikia duten lanpostuei aplikatuko zaie. Gehieneko zenbatekoa dagokion mailako hasierako soldataren ehuneko 30 izanen da.

4. Bigarren jardueran aritzeagatik ordaintzen den aldi baterako osagarri pertsonala foru lege honen 38,5 artikularen bigarren lerroaldean ezarritako kasuetan aplikatuko da. Horretarako baldintzak erregelamendu bidez finkatuko dira.

5. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako udaltzaingoak koordinatzeko batzordeak aldeko txostena eman ondoren, erregelamenduz zehaztu ahalko du zein diren Nafarroako udaltzaingoen kidegoetako kideei ordaindu beharreko lansari osagarriak, foru lege honen xedapenekin bat.”

Zioak: 41. artikuluko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

43. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

80. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 43. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa, bizitzeko beharkizuna modu orokorrean araututa dago funtzionario guztientzat. Bestalde, betebehari erabat zaharkituta dago eta enplegatutako publiko gehienek ez dute betetzen; aldiz, administrazio publikoek ez dute arau-hauste horri buruzko neurririk hartzen, zalantzarik gabe argi eta garbi dakitelako betebehari horrek ez duela ezertarako balio. Gaur egun, oso arrunta da Nafarroan udalerriri batean bizi eta beste batean lan egitea, eta horrek ez du arazorik sortzen, joan-etorrietarako behar den denbora laburra baita.

81. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

43.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

43.1. artikulua. “Polizia kidegoetako funtzionarioek Nafarroako Gobernuak edota kasuan kasuko toki entitateko organo eskudunak erregelamendu bidez ezarritako eskualdean edo barrutian bizi beharko dute, kasu bakoitzeko baldintza geografikoak eta azpiegiturazkoak kontuan hartuta.

Salbuespen gisa, funtzionarioei beste herri batean bizitzeko baimena eman ahal izanen zaie, horrek ez badie eragozten karguaren eginbehar eta eginkizunak betetzea. Baimen horretan baldintza batzuk ezartzen ahalko dira, izan ere, ikusiz gero han bizitzea bere eginkizunetarako kaltegarria dela behin eta berriz edo zerbitzua baldintzatzen duela, bertan behera utz daiteke, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.”

Zioak: Betekizun hori beste araudi konparatu batzuetan agertzen bada ere, destinoko herrian bizitzeko baldintza zorrotzegia izan daiteke, nahiz eta, proiektuan bezala, aukera izan espresuki beste herri batean bizitzeko baimena, atzera bota daitekeena, emateko. Hori dela eta, egokiagoa litzateke bizileku izan daitezkeen erreferentziarako eskualde edo barrutiak arautzea, salbuespena edo

dispentsa erabilera orokorreko arau bihurtzea baino.

44. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

82. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

44.2. artikulua. Atentatu delitu bat gertatzen denean suzko armak, lehegailuak edo arrisku bereko beste baliabide erasogarriak erabiliz, eta horren ondorioz Nafarroako polizietako kideen gorputz osotasuna arrisku larrian jarri bada, zigor arloko ondorioetarako, poliziak agintaritzat joko dira”

Zioak: Egia esateko, xedapen osoa soberan dago, Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoaren 7.2 artikulua errepikapena besterik ez baita. Xedapen horretan zigor tipoaren irismenaren interpretaziorako arau bat ezartzen da, atentatu delitua dagoela noiz ulertu behar den azaltzen duena. Legearen interpretazio horrek zigor arloko xedapen bat zehazten du, eta arraroa izan daiteke polizia arautzen duen lege batean agertzea, baina foru erkidegoari ez dagokio inolaz ere arau hori errepikatzea, bere eskumenen esparrutik at baitago. Are okerrago, ez baita errepikatzen soilik; aldiz, estatuko araua zehaztu egiten da, zuzenketa honen bidez sartu nahi den hitz-tartearekin. Zehaztapena ez da okerra duen edukiarengatik, baizik eta Nafarroako legegileak ezin duelako zigor arloko xedapen baten interpretaziorik egin.

Bestalde, Konstituzioaren jurisprudentziak ez du egokitzat jotzen autonomia erkidegoetako legeriak estatuko oinarritzko legeriako xedapenak modu ez zehatzean errepikatzea.

45. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

83. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzko Lege Organikoa urratzen du.

84. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu hau ezabatu behar da; izan ere, ez du ekarpenik egiten, segurtasun juridiko falta sortzen du eta gertatzen ez den egoera bati buruzkoa da. Poliziek eginiko delituak epaitzeko foruari dagokionez, Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoak ez du ezartzen foru berezirik; aldiz, foru arruntari lotzen zaio. Beraz, ez dago aipamena justifikatzen duen berezitasunik. Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoa baliagarria izan zitekeen estatutu militarra duen Guardia Zibileko funtzionarioen aurkako delituak foru militarretik ateratzeko. Baina hemen, aipamen hori ez da beharrezkoa.

Poliziek eginiko delitu eta faltak aztertzeko foruari dagokionez, egia da Segurtasun indar eta kidegoei buruzko Lege Organikoaren 8.1 artikuluan foru berezi bat aitortzen zela, probintzia auzitegiaren eskumenekoak zirela ezarri baitzuen. Hala ere, jada ez dago halako foru berezirik, Konstituzio Auzitegiak martxoaren 28an emandako 55/1990 epaiaren bidez konstituzioaren aurkakotzat jo baitzuen.

Amaitzeko, Prozedura kriminaleko Legean aurreikusitako foru arruntak ez du inolako salbuespenik, ez poliziaren aurkako delituetarako, ez poliziek eginiko delituetarako. Eta, hori dela eta, beharrezkoa da 45. artikulua ezabatu.

46. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

85. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kidego zibila bada, arau orokorrek arautu behar dute.

86. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 46. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arriskutsua da testuan aurreikustea Nafarroako polizia kidegoetako kideei emaniko esker onak, ohore eta sariak, gaur egun arte guztiz aukeramenez eman direnak eta proiektuaren arabera berdin ematen jarraituko direnak, "lanbide karreraren ageriko elementu" bihurtzea, zeren eta horrekin iragartzen ari baita karrera horrek ez duela objektibotasun bermerik izanen.

87. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege testua hobetu egiten du.

47. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**88. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 47. artikulua honela geratuko da idatzita:

"47. artikulua. Eskubide pasiboak.

Polizia kidegoetako funtzionarioen eskubide pasiboak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko gainerako funtzionarioentzat ezarritako araei lotuko zaizkie".

Zioak: Teknikoki proiektuaren testua baino hobea da; izan ere, proiektuan ez dira aurreikusten gerta daitezkeen egoera guztiak, eta, gainera, Gizarte Segurantzaren araudian edota pasiboei buruzko foru araudian eginiko aldaketek eragin ahal diote.

49. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**89. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuaren 49, 50 eta 51. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horietan arauturiko Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluaren eginkizunak eta egungo Langileen Batzordearen eginkizun ia berdinak dira. Langileen Batzordea araututa dago enplegatu publikoek lan baldintzak zehazterakoan duten ordezkari eta parte-hartzeari buruzko arau orokorren arabera. Antzeko eginkizunetarako bi organo egoteak, hautapen/izendapenerako bi sistema desberdinekin, lan baldintzei buruzko negoziazio prozesuak zaildu eta barne gatazkak areagotzea besterik ez du ekarriko.

90. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontseilu hori ez da ezartzen aholku emateko organo gisa, egiazko ordezkapen organo gisa baizik, negoziazio kolektiboaren arloko eginkizunekin, gaur egun ezarrita dagoen sistema ordezkatuta.

91. ZUZENKETA**ASKOTARIKO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49.3.d) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

49.3. artikuluko d) letra. "Artikulu honetan aipatzen diren gaiei buruzko xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak egitea".

Zioak: Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluak gai horietan duen parte-hartzea manuzkoa izan behar da, baina ez loteslea, eta ezin da utzi kontsulta egiten duenaren nahierara.

50. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

92. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

50.6 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

50.6. artikulua. "Foruzaingoak Kontseiluan izanen dituen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak eginen dira, Foruzaingoko kideek boto pertsonala, zuzena eta sekretua emanaz."

Zioak: Funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoa-ren Kontseiluan dituzten ordezkariak mailaz maila hautatu beharrean hautaketa unibertsala izan dadin proposatzen dugu. Maila bakoitzeko ordezkari kopurua maila bakoitzeko funtzionario kopuruaren arabera izan arren, maila bakoitza ordezkatzeko beharrak gorenako mailen gehiegizko ordezkariak ekar dezake. Horren ondorioz, baliteke eskala edo mailako sindikatu profesionalak sortzea, sindikatu orokorren edo klasekoen kaltetan.

93. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

50.8. artikuluko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

50.8. artikuluko lehen lerrokada. "Nafarroako Foruzaingoa-ren Kontseiluan Foruzaingoko kideek izanen dituzten ordezkariak aukeratzeko, ordezkariak proportzionalaren sistema erabiliko da, izan ere, baliozko botoen ehuneko bost edo gehiago lortzen duen zerrenda bakoitzari ondoko eragiketa matematikoen arabera dagozkion postuak esleitu-ko zaizkio"

Zioak: Funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoa-ren Kontseiluan dituzten ordezkariak mailaz maila hautatu beharrean hautaketa unibertsala izan dadin proposatzen dugu. Maila bakoitzeko ordezkari kopurua maila bakoitzeko funtzionario kopuruaren arabera izan arren, maila bakoitza ordezkatzeko beharrak gorenako mailen gehiegizko ordezkariak ekar dezake. Horren ondorioz, baliteke eskala edo mailako sindikatu profesionalak sortzea, sindikatu orokorren edo klasekoen kaltetan.

51. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

94. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

51. artikuluko c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Mailaz mailako hautaketa ezabatzeko zuzenketekin koherentzia gordetze aldera.

52. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

95. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikulutik 62.era bitartekoak aldatzeko zuzenketa.

"Foruzainen eta udaltzainen diziplina sistema gainerako funtzionarioei aplikatzen zaien bera izan da, bi berezitasunekin:

1. Oro har, buruen aginduak betetzeko betebeharra.

2. Agintearen baliabidearen eta armen erabilera herritarrekin dituzten harremanetan.

Bi berezitasun horiek berriazko erregelamenduen xede izanen dira.

Diziplina araubidea ez da erabiliko lanbide promoziorako oinarri gisa, ez prozedurei ez emaitzei dagokienean.

Halaber, ohore eta kondekorazioak ere ez dira lanbide promoziorako erabiliko. Lanbide promoziorako lanbide irizpideak soilik erabiliko dira"

Zioak: Kidego zibilek ezin dituzte ezaugarri militarrek erabili promoziorako, hala nola ohoreak, kondekorazioak eta diziplinarekin loturikoak.

54. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

96. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko d) idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“edo Segurtasun Indar eta Kidegoko beste kide batzuekiko harremanetan” kentzea proposatzen da.

Zioak: Gure ustez, aurreko testua hobea da eta aipamen hori ez da beharrezkoa.

97. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko m) idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, artikulua amaieran gehitu dugun idatz-zatian jasota egon behar luke.

98. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko f) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gaude ados erregelamenduan ezarritako bidea ez den beste batetik eginiko eskaera edo erreklamazio arau-hauste arintzat hartzearekin, kontuan hartu gabe, adibidez, eskaera edo erreklamazio horrek herritarrei eman beharreko zerbitzuari kalterik egin dion.

99. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluari , ñ) idatz-zatia gehitzeko zuzenketa:

“Oro har, utzikeriaren edo arreta faltaren ondorioz eginiko lanbide-betebeharren arau-haustek, betiere ez badu kalifikazio larriagorik merezi!”

Zioak: Gure ustez, modu horretan, jasota gertzen da ekintza multzo bat, arau-hauste arinak izan daitezkeen hainbat egitate banan-banan aipatu beharrik gabe.

55. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

100. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55.d) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“edo Segurtasun Indar eta Kidegoko beste kide batzuei” kentzea proposatzen da.

Zioak: Gure ustez, aurreko testua hobea da eta aipamen hori ez da beharrezkoa.

101. ZUZENKETA

ASKOTARIKO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55. artikuluko j) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testu honek jasotzen dituen egitateak interpretaziora irekiak daude; are gehiago, arau-hauste larritzat jotzen dituen batzuk usteak besterik ez dira. Hari dela eta, ezabatu beharko litzateke.

102. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55.j) artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, kidekoko kideen norbanakoren eskubideak muga ditzake.

103. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 55. artikuluko z) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ekintza beragatik bi administrazio-zehatu jartzea dakar.

104. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

55. artikuluko j) letra aldatzeko zuzenketa.
Hona proposatzen dugun testua:

“j) Kidegotik kanpoko pertsoneri edo komunika-
bideei eginiko adierazpen publikoak, zerbitzu-ema-
tea modu larri eta nabarmenean kaltetzen dute-
nak”

Zioak: Zehatzagoa eta egokiagoa da, gai horri
buruzko jurisprudentzia kontuan hartuta.

**57. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****105. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

57. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra eta 7. idatz-
zattia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanpostuen betetzea merezimendu eta
gaitasun irizpideen arabera egin behar da, eta ez
da erabili behar diziplina zehapen gisa.

106. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

57. artikuluko a) idatz-zatia kentzeko zuzenke-
ta.

Zioak: Gure ustez, ez da bidezkoa zehapen
gisa erbeste moduko bat jartzea; izan ere, horrek
konponbideak baino arazo gehiago sortzen ditu,
eta are gutxiago arau-hauste larrian berrerortzerik
ez badago.

107. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

57.7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu honetako bigarren puntua ez
zaigu egokia iruditzen, baina gure ustez hau zeha-
pen bikoitza da eta ezabatu egin behar da; izan
ere, lekuz aldatua izan denak jada zehapena bete
du.

**60. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****108. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua kentzeko zuzenketa.

5. idatz-zatian, “agindu ahalko du” ordeztu eta
“aginduko du” jartzea proposatzen da.

Zioak: Zehapen prozesuaren bermeak ezin dira
aukerakoak izan.

109. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua kentzeko zuzenketa.

1. idatz-zatian, “destino herri berean nahiz
beste batean” kentzea proposatzen da.

Zioak: Lege testua hobetzen du.

110. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. idatz-zatiko hirugarren lerrokadan “adminis-
trazio kontratudun” ordezkatu eta “langile finko” jar-
tzea proposatzen da.

Zioak: Zehapen prozesuaren bermeak ezin dira
aukerakoak izan.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZKITAKO ZUZENKETAK

111. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zentzugabea da foruzaingoari atxikitzea kidego horretako kide ez diren eta haren estatutu juridikoaren menpe ez dauden funtzionarioak. Asmoa bada foruzaingoari laguntzeko administrazio unitate bat sortzea, polizia ez diren langileez osatua, hori legean espresuki egin beharko litzateke, baita haren menpekotasun funtzional edo hierarkikoa ezarri ere.

112. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege testua hobetzen du.

XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZKITAKO ZUZENKETAK

113. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Foruzaingoaren Kontseiluari buruzko artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

114. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege testua hobetzen du.

115. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 5. xedapen iragankorra honela gertatu da idatzita:

“Bosgarrena. Komisario postua.

Foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako polizia kidego bateko ofizial lanpostua dutenak automatikoki komisario lanpostuan sartuko dira”

Zioak: Lanpostuei buruzko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

116. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bosgarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Lege proiektu honek indarra hartzeak polizia zuzendararen kargu-uztea ekarriko du.

Zioak: Izaera zibila duen eta aurreko jokamoldeak alde batera utzi dituen Foruzaingo demokratiko berri batek zuzendaritza aldaketa eskatzen du.

AZKEN XEDAPENEI
AURKEZKITAKO ZUZENKETA

117. ZUZENKETA**ASKOTARIKO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Azken xedapen berria. Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeari bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeari bigarren xedapen gehigarriaren aldaketa. Hona testua:

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako udaltzaingoetako segurtasun publikoko laguntzaileak.

Nafarroako udaltzaingoek poliziaren laguntzaile eginkizunak beteko dituzten langileak kon-

trata ditzakete aldi baterako, administrazio-arau-bidean, ohiz kanpoko edo aldi baterako beharri-zanei erantzuteko. Langile horiek beteko dituzten eginkizunak soilik izanen dira ondasunen, zerbitzuen, instalazioen eta egoitza ofizialen zaintza, trafiko araei jarraituz bide-trafikoa antolatzea, herritarren sorospen-eginkizunetan eta babes zibilaren arlokoetan parte hartzea eta administrazio izaera duten arauak bete daitezen zaintzea. Eginkizun horietarako, agintaritzaren agentetzat hartuko dira. Langile horiek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailakoak izanen dira eta beren eginkizunetan jardutean ez dute suzko armarik eramanen. Zerbitzua ematen hasi aurretik egiaztatu beharko dute Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen Nafarroako polizia kidegoetako segurtasun publikoko laguntzaileen ikastaroa gaingitu izana”

Zioak: Udaltzainak ordeztu eta haien eginkizunetatik asko bete beharko dituztenez, gure ustez, C mailan sartu beharko lirateke.

IZENBURUARI ETA IDAZPURUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

118. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Foru legearen izenburuak testu hau izanen du:

“Nafarroako Polizi Kidegoei buruzko Foru Legea”

Zioak: Testuaren edukia hobeto islatzen du eta teknikoki zuzenagoa da.

119. ZUZENKETA

ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. tituluko idazpurua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“III. titulua. Udaltzaingoak”

Zioak: Tituluaren edukitik ez da ondorioztatzen bertan koordinazioa arautzen denik, udaltzaingoak berak arautzen direla baizik. Eta hori kontuan hartuta foru lege hau udaltzaingoan kidegoak koordinatzeko edo homogeneizatzeko

asmoarekin eman dela, koordinazioerako eskumenen bidez.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

120. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Zioen azalpenak idazketa hau izanen du:

“Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 51. artikulua eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Legeak Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia kidegoen araubidea ezarri zuen.

Arau hori hainbat aldaketaren xede izan zen, eta, horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak xedatu zuen, uztailaren 2ko 21/2002 Foru Legearen bidez, Nafarroako Gobernuak, foru dekretu legegile baten bidez, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko testu bategina prestatu eta onets zezan lau hilabeteko epean. Agindu hori urriaren 14ko 213/2002 Foru Dekretu Legegilearen bidez bete zen.

Ondoren, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legeko testu bateginak lau aldaketa partzial izan ditu, eta horren ondorioz, testu bateginaren izaera galdu egin du: apirilaren 4ko 30/2003 Foru Legearen bidez, 35. eta 43. artikulua aldatu ziren; 2004. urterako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 34/2003 Foru Legearen bidez 31.2 eta 35. artikuluen 2. eta 3. idatz-zatiak; uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen bidez 32.1. artikulua aldatu zen, eta, azkenik, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen bidez 19, 20, 23, 24 eta 25. artikulua indargabertu ziren.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foruzaingoaren araubidea eguneratu eta hobetzea, polizia integrala den aldetik; Nafarroako Udaltzaingoaren koordinazio normatibo eta administratiboaren Segurtasun Publikoari buruzko Foru Legeak arautu ez dituen alderdietan, eta Nafarroako polizia kidegoetako langileen estatutu berezia gaur egun go beharretara egokitzea”

Zioak: Testua erraztea eta errealitatera egokitzea. Proiektuaren zioen azalpena, luzeegia izate-

az gain, nahiko fantasiosoa da alderdi batzuei dagokienez, hala nola esaten denean Nafarroak polizia arloko eskumenak izan dituela mende eta erdiz, 1841. urtetik hasita –izan ere, Foruzaingoa

1928an sortu zen–, edota udaltzain laguntzaileak arautzea berritasuna dela esaten denean, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legean jada arautu baitziren.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

